



AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2007/03/29	Ordua eta iraupena: 17:30etan, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	---	-------------------------------

ESKOLAKO AGENDA 21eko Legazpiko ikastetxeetako ikasleen ordezkariak Forora etorri dira **HONDAKINAK, URA eta ENERGI**Ari buruz egindako hausnarketa, proposamenak eta konpromisoak herritarrei aurkezteko asmoz.

62 pertsona elkartu gara. Horien artean ikasleak, gurasoak, irakasleak, herritarrak, dendarien ordezkariak, enpresak... egon dira.

Alkateak ongietorria eman die bertaratukoei eta, sarrera txiki bat egin ondoren, hitza ikasleei eman die.



Ikasleen proposamenak...

Alkate jauna: aurten ere eskolako agenda 21aren bitartez gure ekarpenak egin nahi dizkiogu Legazpiko agenda 21ari. Azken hiru urteetan gai desberdinak hautatu ditugu eta hondakin, zein ura eta energiaren gaiak ardatz izanik hainbat proposamen eta ekarpen egin ditugu eta konpromisoak hartu ere. Udalaren erantzunak jaso genituen bere egunean, eta aurtengoan gai berri bati ekin baino, nahiago izan dugu aurreko urtetako gaien hausnarketa egitea. Horretarako guk egindako lana berrikusi, zuk emandako erantzunak kontuan hartu eta egungo egoera zein den aztertu dugu. Horren aurrean proposamen eta ekintza batzuk aurrera eramateko eskaera eta konpromisoa ekartzen dizugu.

Legazpiko 870 ikaslek hartu dugu parte 2006-2007 Eskolako Agenda 21aren garapenean. Haur Hezkuntzakoek gure parkeak aztertu eta nola gustatuko litzaiguen egotea horma-iruditan azaldu dugu. Besteok, aurreko urtetan hondakinak, ura eta energia arloetan hartutako konpromisoak eta proposamenak aztertu ditugu.

HONDAKINAK

GURE PROPOSAMENA: Plastikozko poltsak ez doan eman eta berrerabiltzen saiatu eta zilarrezko papera ez erabili.

ZURE ERANTZUNA: Dendariekin bilerak egiten ari gara bilgarriak gutxitzeko.

EGUNGO EGOERA: Plastikozko poltsa gehiegi erabiltzen dugu oraindik

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: **Etiketarik gabe poltsak eraman eta etxean ditugunak berrerabili eta birziklatu.**

URA

GURE PROPOSAMENA: - Kaleko iturrirei pedalak jarri eta guk ura bere neurrian erabiliko dugu.

ZURE ERANTZUNA: - Iturriek dituzten zapaltzeko botoiek pedalen funtzio berbera dute arazo gutxiago emanez.

EGUNGO EGOERA: Botoiak sakatu behar dira, baina hala ere ur gehiegi gastatzen da.

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: **Ahal den neurrian, botoia sakatzen den bitartean bakarrik ura ematen duten iturriak jarri. Urtatzako parkean ahal bada iturria jarri**



AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2007/03/29	Ordua eta iraupena: 17:30etan, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	---	-------------------------------

ENERGIA

GURE PROPOSAMENA: - Kaleko argiztapena hobetu eta gabonetakoa murriztu. Guk telebista ez dugu urrutiko agintearekin itzaliko.

ZURE ERANTZUNA: - Dendariei helaraziko diegu Gabonetakoa. Kaleko argiztapena hobetzen ari gara



EGUNGO EGOERA: Zenbait kaletan argia hobetu behar da farolak egon arren ilunegia dagoelako. Gabonetan ikusi dugu neonezko kableak jarri dituzuela eta gutxiago kontsumitzen dutela. Udal egoitzetan kontsumo baxuko bonbillak ari zarete jartzen. Orokorrean gauzak egiten ari zarete. Guk ere energia aurrezten saiatu gara.

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: Herriko farola guztiak txapelekin jartzea eta Gabonetako argiak bakarrik gabon egunetan piztea. Egun osoan jartzen den Gabonetako

musika (Kale Nagusian eta Laubiden) kentzea, energia ez gastatzeko

HONDAKINAK

GURE PROPOSAMENA: - Hondakinak behar den lekura botako ditugu. Zergatik ez dira lur azpiko ontziak jartzen?

ZURE ERANTZUNA: - Ez daukagu diru nahikorik, hala ere, Aiztonagan jarriko ditugu.

EGUNGO EGOERA: Aiztonagan ez da lur azpiko ontzirik jarri eta guk ere ez ditugu hondakinak behar den lekura botatzen

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: gure konpromisoak betetzen saiatu eta herria garbia mantentzako kanpainak egin mezu adierazgarriak erabiliz.

URA

GURE PROPOSAMENA: - Udal zerbitzuetan ur edangarria alferrikerik ez gastatu. Guk ura bere neurrian erabiliko dugu.

ZURE ERANTZUNA: - Edangarria ez den ura futbol zelairako eta enpresentzako erabiltzea aztertuko dugu, kaleak garbitzeko ez da ur edangarria erabiltzen eta suhiltzaileentzako konponbidea oso zaila da.

EGUNGO EGOERA: Hobekuntzarako bidean zaudete. Gure aldetik ura aurrezteko neurri guztiak ez ditugu betetzen

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: Hobekuntzekin jarrai dezazuela eta gure aldetik konpromisoak betetzen saiatuko gara.



ENERGIA

GURE PROPOSAMENA: - Ibilaldi luzeetarako garraio publiko gehiago jartzea, gure etxekoei autoa konpartitzeko eskatuko diegu.

ZURE ERANTZUNA: - Autoa konpartitzeko zerbitzua urtea bukatu baino lehen izatea espero dugu.

EGUNGO EGOERA: Autoa konpartitzeko aukera ematen duen web orria martxan dago! Distantzia txikiak oinez egiten ditugu, baina autoa gehiegi erabiltzen da.

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: Udalaren izenean eskutitz bat bidali etxebizitzetara energia aurrezteko aholkuekin. Autobusa erabiltzeko prezio merkeagoak jarri eta motorrentzako aparkalekuak.



AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2007/03/29	Ordua eta iraupena: 17:30etan, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	---	-------------------------------

HONDAKINAK

GURE PROPOSAMENA: - Edukiontzi eta paperontzi gehiago jarri eta maizago hustu eta garbitu.

ZURE ERANTZUNA: - Egunero usten dira, bi astean behin garbitzen dira eta bi hilez behin sakonki. Aipatutako auzoak aztertuko dira.

EGUNGO EGOERA: Eduki ontzi gehiago jarri direla ikusi dugu adibidez Laubideko errotondan baina ez ditugu ondo erabiltzen.

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: **haurrei jokoan bidez edukiontzien erabilera egokia erakutsi. Parkeetan jarri diren edukiontzi txikietan txartelak jarri.**

URA

GURE PROPOSAMENA: - Lantegietako isurketak kontrolatzea, ibaiako kanalizazioak ekiditea eta ur hoditeria konpontzea. Guk ez dugu ibaira zikinkeriarik botako.

ZURE ERANTZUNA: - Kontrolatu gabeko isurkinak badaude isuna jarriko zaie eta ur ihesak bilatzen gabiltza. Kanalizazioak beharrezkoak dira uholdeak ekiditeko

EGUNGO EGOERA: Ibaia iaz baino zikinagoa aurkitu dugu. Erreka egunean zabor kilo gehiago jaso genituen. Hodiak berritzen edo aldatzen ari dira.

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: **Adituen hitzaldiak kontzientzia sortzeko antolatu eta kartel deigarriak jarri.**

ENERGIA

GURE PROPOSAMENA: - Energia berriztagarriak erabiltzea eta lantegietan filtroak ipini arazi. Guk birkargatzeko pilak erabiliko ditugu.



ZURE ERANTZUNA: - Eguzki plakak udal eraikuntzetan jartzeko hitzarmena dugu eta etxe berrietan ezartzeko aukera aztertzen ari gara. Lantegi berriek filtroak dituzte eta zaharren egoera asko hobetu da.

EGUNGO EGOERA: Ez dugu aztertu energia berriztagarrien ezarpena. Bateriak eta birkargatzen diren pilak kargatzen ez direnak baino gehiago erabiltzen ditugu orain.

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: **Martxan dauden ekintzak aurrera egiten jarraitzea eta bultzatzea, (eguzki plakak, birkargatzeko pilen erabilera,...)**

HONDAKINAK-URA

GURE PROPOSAMENA: - Ibaia zikina dago eta jende asko legoke prest garbitzeko. Bertako bizidunak errespetatu behar dira.

ZURE ERANTZUNA: - Erreka eguna antolatuko dugu

EGUNGO EGOERA: Ibaiak zikin jarraitzen du. Ez dakigu baratzak dituztenek konpostadorerik duten ala ez.

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: **Erreka eguna antolatzen laguntzeko prest gaude. Ez dugu arraskatik behera zikinik botako. Baratzak dituztenen artean konpostadoreak banatuko diren ala ez jakin nahi dugu.**



GURE LELOA " Garbituz ibaia Legazpin dugu jai! "

Partaidetza bultzatzeko gutun bat egin dugu Udalak herritarrei bidal diezaiezuen egingo diren ekintzaz informatuz eta parte hartzera animatuz. Komunikabide eta kaleetan informazioa banatuko dugu.

Ekintza lagungarriak: txikientzat joko desberdinak antolatu ditugu.



AGENDA 21EKO FORO-LANTALDEAREN AKTA
Legazpiko Agenda 21

Eguna: 2007/03/29	Ordua eta iraupena: 17:30etan, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxea
----------------------	---	-------------------------------

ENERGIA

GURE PROPOSAMENA: - Herri pobreei aurrekontuen %0,7a eman beharko litzateke.

ZURE ERANTZUNA: - 2007 urtean %0,7ra iritsiko da

EGUNGO EGOERA: Ez dakigu udalak %0,7ko laguntza ematen duzuen

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA. **Ahal bada laguntza gehiago eman**



ENERGIA

GURE PROPOSAMENA: - Eraikuntza publikotan energia hobeto erabili beharko litzateke.

ZURE ERANTZUNA: - Eraikuntzak berriro ahala energiaren aurrezpena kontutan izaten da.

EGUNGO EGOERA: - Eguzki plaka gutxi batzuk daude: hiru ikastetxetan, udaletxean, kultur-etxean...

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: - **Eguzki plakak leku gehiagotan jartzten saiatu behar da eta eraikin publikoetan energia aurrezten.**

HONDAKINAK-URA-ENERGIA

GURE PROPOSAMENA: - Herritarrei zuzendutako kontzientziazio kanpainak egin behar dira herria garbia mantentzeko, ura aurrezteko eta erakusteko udalak nola murrizten duen energia (aire gortinaren eraginkortasuna).

ZURE ERANTZUNA: - Berezi gabeko propaganda debekatu nahi dugu. Herritarrei beraien posta ontzietan "propagandarik ez" jartzeko eranskinak banatuko ditugu.

EGUNGO EGOERA: - Propaganda gehiegi iristen zaigu baina etxe batzuetan, "propagandarik ez" jarrita dago.

PROPOSATZEN DUGUN EKINTZA: - **Idatzi dugun eskutitza, jendea kontzientziazteko erabiltzea dago. Nola? Egunkarietan eta gidan argitaratu eta Urola-Garaiako telebistako kanalean ikasle batzuk irakurritz. Kontzientziazio kanpaineekin ezer gutxi lortzen bada, isunak jartzten hasi beharko litzateke zenbait kasutan.**

AMAIERA

Ekarpen hauen xedea herria hobetzea denez, zuen erantzuna espero dugu, eskerrik asko.

Lan hau aintzakotzat hartuko duzulakoan gaude eta aurten ere zure erantzunaren zain egongo gara gure herrirako nahi ditugun hobekuntza horiek aurrera atera daitezten itxaropenarekin. Mila esker zure arretagatik eta beste bat arte.

Proposamenak entzun ondoren bai alkateak bai Sasietako arduradunak zenbait gai aipatu dute:

- * Aurten aurrekontuaren %0,7a gastatuko da kooperazio proiektuetan.
- * Lur azpiko edukiontzien arazoak: mantenua, inguruan gelditzen diren hondakinak, ezin dira mugitu, oso garestiak dira...
- * Azokako gaikako sailkapena egiten hasi da udala.
- * Hondakinak bereizteko parkeetan jarri diren zakarrontziak hobeto erabili behar dira.
- * Gabon Egunean, Olentzerok ekarritako oparien kaxak jasotzera pasatu zen Sasietaren kamioia, sei herritan 5.000 kilo kartoi jasoz !!!

Bilerara etorri den merkatarien ordezkari batek gabonetako argiei buruz bere iritzia eman die: Gabonetan herria apainduta egotea komeni da, legazpiarrok gure erosketak herrian bertan egiten bultzatzeko. Zentzu honetan alkateak argiak erabili gabe herria apaintzeko proposamenak eskatu die ikasleei.

Bukatzeko, alkateak egindako proposamenak eskertu egin dizkie ikasleei eta zorionak eman dizkie egin duten lan sakonagatik. Aztertuko duela esan du eta laster erantzuna emango diela.